



Tolosako Alde Zaharreko kaleetako saltokiak itxita. ASIER IMAZ

Ezinegona nabari da langileen artean

Langile autonomo askok itxi egin behar izan dituzte euren lantegiak; laguntzak ere iragarri dituzte gobernuek, baina horiek nola iritsiko diren ez dakitela azaldu dute // 4-5

«Guztien hobe beharrez geratzea erabaki nuen»

UNAI ARREGI
ITALIAN IKASTEN ARI DEN TOLOSARRA

Italiako Lonbardia eskualdeko Brescia hirian bizi da burutzen ari den ikasketak medio; familiak Tolosara itzultzea nahiago bazuen ere, bertan geratu da, «epe luzera begira erabaki onena delako» // 3



Unai Arregi Italiako Brescia herrian. ATARIA



ataria
argazki lehiaketak

Mozorro hoberenaren bila



ALDEKOA



Suite Baztan saria:
Bi pertsonarentzako gau bateko egonaldia:
Jakuzzidun logela eta gosariekin
Zigako Aldekoa Landetxearen eskutik
948 45 26 06 • www.aldekoa.es
Epaimahaiaren sari nagusia

Bozkatu hemen





R. ZABALA
SINCE MORE THAN 200 YEARS

Lau pertsonarentzako otordu bat
Zabala sagardotegian
Goiburu auzoa, Aduna
943 69 07 74 • rzabala.com
ataria.eus-eko
erabiltzaileen saria



LURLAN
BASERRITIK ZURE ETXERA
DOL. KATERIA ETXERA

Bi lagunentzako bi afari
Lurlan Bistrot dendan.
Plaza Berria 2, Tolosa
943 24 33 39 • lurlanbistrot.eus
Atarikideen saria

Tolosan 1401. urtetik hona egon diren epidemien bilduma egin du 'Tolosaldeko Ataria-k'; historian zehar herrian egon diren osasun zerbitzu eta ospitaleen inguruko informazioa ere jaso du

Epidemia gehiago historian zehar

Joxemi Salzar Tolosa

Egun bereziak ari gara bizitzen osasun krisia dela eta. Sekula ezagutu gabeko aldaketak pairatzen ari gara, jarduerak geldituta, denda eta taberna gehienak itxita eta etxean luzaro egotera behartuta. Antzeko egoerarik ez da ezagutu eta badirudi inoiz ez dela horrelakorik gertatu, baina historian zehar epidemiak, gaixotasunak eta osasun egoera larriak izan dira. Horiek gogoratzen saiatuko da Ataria historialarien laguntzarekin.

Pablo Gorosabelek bere *Bosquejo de las antigüedades de Tolosa* liburuan jaso zituen horietako osasun larrialdi batzuk.

1401. urtea, uztaila. Ikaragarriko izurritea iritsi zen Frantzia aldetik hona. Hildako asko izan ziren. Herrietan babesik gabe gelditu ziren eta mendietatik lan handiz lortutakoarekin atera ziren aurrera. Litekeena da XIV. mendean mundu osoan zabaldu zen izurri beltzaren azken arrastoak izatea, 25 milioi hildako utzi zituen.

1597. urtea. Gipuzkoan kalte handiak egin zituen izurri gaixotasun bat sartu zen, bereziki Donostian eta Pasaian, baina Tolosaldera ere zabalduko zen seguru aski.

1707. urtea, uztaila-abuztua.

Miserikordia Etxea da osasun zerbitzuak eskaintzen daraman erakunde zaharrena

Epidemia kutsakorra nozitu zen herrian Almansako batailako presoak izan zirelako bertan. Gaixotasunaren izaera ez zen ezagutu, baina biktima asko eragin omen zituen. Errogatibak egin ziren eta gaixoen ostatuak ozpinez garbitzea agindu zuten.

1784. urtea, martxoa. Tolosan eta bere Miserikordia Etxean epidemia kutsakor eta kaltegarria nagusitu zen, batez ere jende behartsuaren artean triskantzak eginez. Kanpoko sendagileak ekarri zituen Tolosako Udalak



Goian, Miserikordia etxea lurreamendin 1918an, eraikitzen arizela. Behean, ezkerrean, Arrameleko Miserikordia Etxea, 1902an. Eskuinean, San Frantzisko komentua; Napoleonen soldadu gaixoak hartzeko erabili zen gerran. POLIKARPO ELOSEGI/ATARIA/LABORDEREN ALARGUNAREN BILDUMA

bertakoei laguntzeko. Tifus exantematikoa edo zorri berdearena izan zitekeen. 300 gaixo baino gehiago izan ziren eta 46 pertsona hil ziren. Epidemiak iraun zituen hiru hilabeteetan, beste gaixotasunetatik beste 30 gehiago hil ziren.

1786. urtea, udazkena. Paludismoak herritar asko eraso zituen eta Tolosako Udalak Gobernuari kina arroa eskatu zion Iruñeko Gotzainaren bitartez, gaixotasuna menderatzea lortuz.

1794. urtea. Sukar ustel kutsakorreko epidemia izan zen eta Manuel Bernardino de Arangueren sendagilea hil zen.

1804. urtea. Gaixotasun kutsakor bateko 70 kasu izan ziren Tolosan, Miserikordia Etxera eramane zituzten eta dirudienez denak sendatu ziren.

1808. urtea. Sukar biliosopituitosoa, ustel-nerbioetako

izan zen, San Frantzisko komentuan Napoleonen tropako soldadu frantses gaixo asko elkartu zirelako. Epidemia honen ondorioz, hurrengo urteko martxoaren 6an lehen hildakoa lurperatu zuten Larramendi kalearen bukaeran zegoen kanposantuan.

1828. urtea. Beste epidemia ustel-nerbiosoa jasan zen herrian, heriotza gutxi eraginez. Sukar tifoidea izan zela dirudi.

1834. urtea. Tolosan eta Ale-gian kolera morbo kasu batzuk izan ziren, baina ez zen zabaldu hartu ziren osasun neurriengatik.

1837. urtea. Sukar tifoideko epidemia izan zen, kasu dezentekin eta kasuen % 12a hil zen.

XVII-XVIII. mendeak. Baztangak txikizioak eragin zituen hemen eta mundu osoan, XIX. mendearen bukaera arte, derri-gorrezko txertaketa ezarri zenean desagertuz.

Aspaldiko garaietatik Ospitale Zaharra deitzen zena zegoen Santa Maria parrokiaren inguruan, gaixo behartsuak zaintzeko eta erromesei ostatu emateko. Txikia eta deserosoa zen, 1631n 16 ohe besterik ez zituen. 1768an Ospitale eta Miserikordia Etxe berria eraikitzea erabaki zen,

1918. urtean 140 pertsona hil zituen gripeak Tolosan, urrian 84 hildako eragin zituen

Arrameleko San Joan ermitaren ondoan. 1774an lanak hasi eta 1780ean bukatu ziren. 1813an su eman zitoten Napoleonen kontrako tropa aliatuek. 1818tik 1821era berreraiki zuten.

Santa Maria Madalenako ermitako etxea legenardunentzako ospitalea izan zen garai batean, 1621ean zerbitzua kendu arte, horrelako gaixoak desagertu zirenean. Plaza Berriko Toriles etxea ospitale gisa egokitzen zen epidemia zenean. Belateko Jesusen Zerbitzarien fundazioa 1902tik dago bertan, aurretik Santa Maria Parrokiaren ondoan egon ziren, 1886tik. Udal Laborategia 1913an sortu zen. Miserikordia etxe berria 1913an hasi ziren eraikitzen Iurreamendin eta 1920ean inauguratu zen. Ehun urte ditu aurtan, beraz.

Gurutze Gorria 1925an inauguratu zen Tolosan. Izaskun klinika 1928an zabaldu zen gaur egun Oria hotela dagoen tokian, itxita egon zen eta berriz 1946an zabaldu zen, 70eko hamarkadan itxiz betirako. 1945ean Gaixotasun Aseguru Zerbitzua ezarri zen Tolosan. 1952an anbulatorioa ireki zen gaur egun Galtzaundi euskara taldea eta Tolomendi dauden egoitzan. San Juan klinika Guadalupe inguruan zegoen, 1953tik 1974ra izan zen martxan. 1957an San Cosme y San Damian klinika ireki zen eta 1993an gaur egungo Uzturre egoitza izatera aldatu zen. Asuncion klinika 1967an sortu zen eta zabalik jarraitzen du. Tolosak historian zehar osasun zerbitzuen kezka izan duela erakusten dute aurreko datuek, bere zerbitzuak eskualde osoari eskainiz.

1918. urtea, iraila-azaroa. Gripeak biztanleriaren zati handia kaltetu zuen eta biktima ugari eragin zuen. Urrian bakarrik 84 hildako izan ziren eta guztira, 140.

1930. urtea. Indar handiko sukar tifiko agerraldia izan zen, Iturri txikiko uren kutsaduragatik. Horregatik itxi zuten. Mariaren Bihotz Sakratuaren komentu aurrean zegoen.

OSPITALEAK ETA OSASUN ZERBITZUAK

Egoera hauei aurre egiteko, Tolosan historian zehar izan diren ospitaleak eta osasun zerbitzuak aipatzen ditu Bibiano Larramendi sendagileak *Libro-Homenaje a Tolosa. VII Centenario 1256-1956* liburuko artikulua batean. 1566an osasun antolaketa baze- goen eta agintariekin kontrolatzen zuten: botika, medikua, liburuak, sendagaiak...

«Telebista itzali eta albisteak ez entzuteko esaten nien senitartekoei»

UNAI ARREGI LEON ITALIAN IKASTEN DUEN TOLOSARRA

Master bat dela eta, Brescian ari da ikasketak burutzen; orain, ordea, etxetik ari da ikasten, koronabirusak izan duen eragina dela eta. Egun bizi duten egoerari hemengo kazetariak ematen dien trataerak kezkatzen du gehien.

Josu Artutxa Dorronsoro

Lehen sei hilekoa Frantzian burutu ondoren, otsaila erdialdeaz geroztik, Mikrouhinetako Elektronika eta Optika Berritzaileak Erasmus Mundus Masterra burutzen ari da Lonbardia eskualdeko Brescia hirian (Italia), Unai Arregi Leon (Tolosa, 1996). Milanen, Bresciatik oso gertu, atzeman ziren Covid-19 birusarekin Italian kutsatutako lehen herritarrak, eta herrialdea alarma egoeran aurkitzen da orain. Egun, Europa mailan, pandemia honen epizentroa da Italia.

Master bat burutzera joan, eta etxetik atera ezinik zaude.

Unibertsitatean ari nintzen ikasten, baina otsailaren 24an, klaseak bertan behera uzteko erabakia hartu zen. Kasu gutxi ziren hasieran, 40 inguru, eta astebeteko geldialdia izango zela adierazi zuten. Hala ere, egoeraren bilakaeraz jabetu, eta geroz eta kasu gehiago zeudela ikustean, klaseak atzeratzea erabaki zuten. Berez, klase presentzialetara itzultzekoak gara apirilaren 6an.

Online bidez ari zara ikasketei jarraipena ematen, ezta?

Bai. Berria izaten ari da niretzat. Nire burua antolatu beharra izan nuen hasieran, oso garrantzitsua baita norberak bere errutina propioa zehaztea. Funtzionamendua egokia izaten ari da; eskura dugu irakasgaien material osoa, irakasleek bideoak grabatzen dituzte guretzako, eta egitekoak

ere bidaltzen dizkigute. Zorionez, asko ari naiz ikasten, eta horrez gain, entretenitzeko tarteak ere hartzen dut. Egoera desberdina da, baina akademikoki ez du inolako galerarik suposatzen. **Ba al duzu kontakturik bertako ikaskide eta lagunekin?**

Nahiko isolatuta gaude. Ikasle pisu batean bizi naiz, beste bost lagunekin; kataluniar bat eta lau italiar. Une honetan, ordea, bi soilik gaude etxean. Kataluniarrek nahiz italiarretatik hiruk euren jaioterrietara itzultzea erabaki dute. Nirekin bizi den italiarrek banketxean egiten du lan, eta pasa den asteaz geroztik, ez da itzuli. Unibertsitateko ikasleekin eta irakasleekin, aldiz, bilerak bertualak egiten ari gara, tarteak. Ikasle pisuetan elkartzeko hasi ziren batzuk, baina hori ere ez egitea gomendatu zuten.

Apirilaren 6ra arte egongo zarete egoera honetan?

Hala izatea espero dugu. Ikusteko dago, baina, noiz itzuliko garen normaltasun egoerara. Orain gobernuaren neurriek jaramon egitea eta gomendioak betetzea besterik ez zaigu geratzen. Gero ikusiko da noiz hasten diren emaitzak hobetzen. Nabari da ezohiko egoera batean gaudela. Bresciako ospitalea, gainera, Italiako garrantzitsuenetakoa da, eta leku falta dutela diote. Gu bertatik oso gertu bizi gara, eta egunero, etengabe entzuten ditugu anbulantzien sirena hotzak.



ATARIA

Egun, koronabirusaren Europako epizentroa da Italia.

Pasa den astelehenean, dekretu bat argitaratu zuen Italiako Gobernuak. Bertan, gunek gorri bezala markatzen zuen Lonbardia-ko eskualdea. Pare bat egun beranduago, ordea, egoera askoz ere larriagoa zela ikusi zuten. Helburua argia zen: Covid-19 birusaren hedapena iparraldean geratzea, gainerako eskualdeetara ez zabaltzea. Hori, ordea, ezinezkoa izan zen, eta azkenean, herrialde guztia kontsideratu behar izan zuten gunek gorria.

Eta nola dago uneotan Italia?

Isilik dago, komertzio guztiak bi astez ixteko agindua eman zuten pasa den astean, eta ez dabil ia inor kalean. Hasieran, baina, normaltasunez bizi ginen; pentsa, gehiago kezkatzen ginen gure senideengatik. Izan ere, Espainiako hedabideek kaleratzen zuten informazioa ez zen batere erreala, oso alarmista zen. Duela bi astetatik, ordea, bestelakoa da egoera, kalera ateratzeko debekua jaso genuelako. Soilik urgentziazko egoeran atera gaitzek, bestela isun larriak jaso ditzakegu. Ni supermerkatuak joateko bakarrik ateratzen naiz, eta lehengo astean atera nintzen azken aldiz. Erosketak egitera joaten diren herritar eskas batzuk besterik ez ditut gurutzatzen.

Tolosan dituzun familiko senideek nola bizi dute egoera?

Aurreko bi asteetan oso lasai geunden hemen, ez genuen ino-

lako larrialdirik, baina egunero jasotzen genituen senideen deiak. Zuten kezka oso handia zenez, telebista itzali eta albisteak ez entzuteko esaten nien senitartekoei. Ni Tolosara itzultzea nahi zuten, batez ere, elkarrengandik gertu egoteke, eta niri ere burutik pasa zitzaidan aukera hori. Hala ere, azken erabakia nire zela eta guztiz errespetatuko zutela esan zidaten. Irakasleekin ere hitz egin nuen, eta arazorik ez zegoela esan zidaten.

«Esperientzia berri bat bizitzeko eta horrek dakarren guztiari aurre egiteko etorri nintzen Italiara»

Guztien hobe beharrez, eta adituek zentzuz jokatzeko eta ahalik eta gutxien mugitzea eskatu zuten, geratzea erabaki nuen. Ez zen erabaki erraza izan, baina argi nuen erantzukizunez jokatu behar nuela. Epe luzera begira, erabaki onena dela iruditzen zait. Horrelako egoera bat suertatu bada ere, esperientzia berri bat bizitzeko eta horrek dakarren guztiari aurre egiteko etorri nintzen, eta ez bi asteren buruan etxera itzultzeko. Gerora, gainera, kontatzeko moduko anekdota bat izango dut.

Alarma egoeran, gainera, bidaiatzeko debekua ere ezarri zuen gobernuak.

Gomendio modura ezarritako neurria izan zen hasieran. Pasa

ITALIAN IA %8KOA DA HERIOTZA-TASA

Europako egoerarik larriena bizi du Italiak. Datuak beldurgarriak dira: 31.500dik gora kutsatu, 2.500 hildako baino gehiago (munduan koronabirusagatik hiltzen direnen ia herenak), eta berreskuratutako 3.000 lagun. Bakarrik Bergamoko probintzian, 385 hildako zenbaturik azken zazpi egunetan. Txinaren atzetik, herrialderik astinduena da, ia %8koa baita bertan heriotza-tasa, eta munduko populaziorik zaharrena duen herrialdea da, Japoniaren atzetik. Bizi-itxaropena 80 urtekoa da gizonezkoetan; emakumezkoetan, berriz, 85 urtekoa.

Massimo Galli Milango Sacco Ospitaleko arduradunaren hitzetan, «sintoma larriak dituztenei bakarrik egiten dizkiete frogak, gaixo egon daitezkeen herritarren zati handi bat kanpoan utziz. Ez dugu azpiegitura seguru nahikorik proba masiboak egiteko». Epidemiaren inpaktua oso larria izan da, batez ere, iparraldean, eta horregatik egiten dira frogak gutxi. Hego Korean, adibidez, 8.000tik gora kutsatu dira, baina heriotza-tasa, %0,9koa da. Seuleko gobernuak frogak egin dizkiete 250.000 herritarrei, tartean, sintomak ez dituztenei ere bai. Italiako Gobernuak, Kongon Ebolararen aurkako borrokan aritutako medikuak hartzeaz gain, ospitale berriak jarriko ditu, Milango azoka batean eta Bergamoko probintzian.

den astean, hemen nituen Madrilgo, Almeriako nahiz Zaragozako lagunek, ez zuten arazorik izan etxera itzultzeko. Orain, ordea, ez dute herrialdean sartzen uzten, ezta bertatik ateratzen ere, eta probintzien arteko bidaiak ere debekatzen hasi dira.

Oro har, zer moduz ari dira portatzen italiarrak?

Alarma egoera ezarri baino lehen, nahiz eta gobernuak ez bidaiatzeko gomendatu, mugimendu handia izan zen, batez ere hemendik atera nahi zuen jende asko zegoelako. Kaos egoera batean sartu zen Lonbardia, eta gerora, baita herrialde osoa ere. Egun batetik bestera, ordea, sekulako alde nabari da. Orain oso ondo ari dira portatzen, gobernuaren agindu guztiak betetzen eta gomendioak jarraitzen. Esaterako, supermerkatuetako apalak ez dira hutsik geratzen, gutxi egiten dituztelako erosketak kantitate handietan. Ikasle asko ere online bidezko alternatibak proposatzen ari dira, hala nola, italiara ikastea, yoga egitea edota sukaldean trebatzea.



Asteasuko Siemens Gamesa enpresan koronabirusa iritsi aurretik greban zeuden langileak, eta greban jarraitzen dute. J. MIRANDA

Langileen artean kezka da nagusi

Autonomo askok itxi egin behar izan dituzte euren negozioak, eta astea nolabait pasa dute enpresetan; laguntzak atera dituzte, baina ez dakite nola iritsiko diren

Eneritz Maiz Etxarri

Tolosaldeko ekonomia ere aztoratu du koronabirusak. Enpresa handi eta txikiagoek neurri ezberdinak hartu dituzte, eta autonomo gehienek ezinbestean negozioak itxi egin behar izan dituzte. Agintariek diru laguntzak iragarri dituzten arren, kezka da nagusi langileen artean.

Eusko Jaurlaritzak 300 milioi jarriko ditu kalteak arintzeko.

Enpresak laguntzeko eta herritarren beharrezanean erantzuteko programak garatzeko izango da 300 milioiko aurrekontua. Gehiago behar izanez gero, 500 milioira arte handituko dutela adierazi dute.

Horrez gain, Finantzen Euskal Institutuaren premiazko finantzaketa lerro bat aktibatuko du. Kasu honetan, 25 milioikoa izango da produkzio ehunari likidezia emateko, eta batez ere, en-

presa txiki, ertain eta autonomoei begira.

Era berean, finantzaketa lerroak ahalik eta lasterren artikulatzea aurreikusten du Jaurlaritzak. 500 milioiko abalak emango ditu; bost urterako eta zero kostuan izango dira. Baina laguntzak gauzatzeko oraindik sail guztiak koordinatzen ari dira.

Espainiak 200.000 milioi euroko funtsa baliatuko du ondorio ekonomikoei aurre egiteko, eta

Pedro Sanchezen hitzetan, «krisi honetan ez da inor atzean gertatuko». Neurri ezberdinak hartu ditu. Hasteko, hipotekak dituztenek, beren lehen etxebizitzako hipotekan, datozen hilabeteetako ordainketak atzeratu ahal izango dituzte.

Ura, telekomunikazioak eta energian azpimarra jarri dute. Langabezia edota diru sarrerak murrizturik geratu diren familietan, energia, ura eta telekomunikazio zerbitzuak jasotzen jarraituko dute. Hau da, enpresek ezingo dituzte familia horiek zerbitzurik gabe utzi.

Enplegu erregulazioetan ere langileen aldeko neurri moduan aurkeztu zuen aldi baterako erregulazio enplegua. Erregulazioak irauten duen bitartean, beti ere koronabirusagatik bada, langileak langabezia saria jasoko du, eta ez du jatorrizko langabeziak dakarren diru laguntzatik gastatuko. Eskubide hori sortu ez dutenek ere kobratzeko aukera izango dute.

Autonomoei begira, berriz, ko-

tizazio merkeagoak pagatzeko aukera izango dute, edota ez pagatzekoa enpleguari eusten badiote. Enpresa txiki eta ertainek %75 merkeago eta autonomoek %100ean, hau da, ez diote kotizaziorik ordainduko Gizarte Segurantzari.

EZJAKINTASUN HANDIA

Kezka eta ezjakintasuna da nagusi LAB sindikatuaren esanetan, «langile asko eta asko ari dira deika». Enpresek planteamendu ezberdinak egin dituzte, baina helburua akordioetara iristea izan beharko luke. «Batzuk oporrak hartzera behartu dituzte, beste batzuk akordio ezberdinak egin dituzte, baina zubia tarteko, hiru egun hauei begirakoak izan dira», kontatu du. Baina hurrengo astera begira, sindikatutik, ERTE asko espero dituzte enpresetan: «Epe horretan langileen egoera suspendituta gertatuko da, eta suposatzen da langabeziako prestazioa kobratu ahal izango dutela guztiek, nahiz eta ez egokitu», argitu dute. Baina galderak hor sortzen zaizkie, «nola eramango dira laguntza horiek aurrera?». Momentuz, ez dakite.

Prebentzio neurriak behar bezala betetzen ez diren enpresetan itxiera eskatu dute sindikatutik: «Enpresa txiki asko lanean ari dira, baina guztietan ez dira prebentzio neurriak behar bezala betetzen ari dira. Kasu horietan enpresa itxi beharko lukete».

Bestetik, LAB sindikatutik mezu garbia luzatu dute: «Langileek enpresei gauzak ondo egiteko eskatu behar die, eta langileek idatziz ezer eduki gabe erabakiak ez aztertzeke gomendatzen diete».

Galdera asko eta asko daude langileen aldetik, baina argi utzi dute, egunetik egunera erantzun ezberdinak ematen ari direla sindikatutik, eta neurriak etorri ahala, egunetik egunera erabakiak aldatzen doazela.

LANGILEEN BORROKAK

Koronabirusak greban harrapatu ditu hainbat langile. Asteasuko Siemens Gamesa enpresako langileen kasuan, esaterako, grebarekin jarraitzea erabaki dute. Gipuzkoako zahar etxeetako langileek, aldiz, bertan behera utzi dute greba. ELAk adierazi duenez, «koronabirusak sortutako arazoak konpondu bitarte». Zahar etxeetan dauden «osasuna eta arreta» direla lehentasuna azpimarratu dute, baina nabariak direla «sektorea esku pribatuetan uztearen ondorioak».

R. ZABALA
SINCE MORE THAN 200 YEARS

GARAGARTZA BASERRIA
20150 ADUNA, GIPUZKOA,
BASQUE COUNTRY, SPAIN

INFO@RZABALA.COM

PHONE NUMBER
0034 943 69 07 74

WWW.RZABALA.COM

**EGUNERO IREKITA IGANDE
GAUAK IZAN EZIK**

**OSTIRALA, LARUNBATA ETA
IGANDE EGUERDITAN IREKITA**

«Gaur-gaurkoz, autonomoak salduta gaude»

ANELI URBieta
AUTONOMOA

Autonomoen egoeraz hitz egin du Asteasun bizi den larrauldarrek; diru sarrerarik gabe geratu da, nahiz eta gastuek hor jarraitu

Asier Imaz Asteasu

Igandetik etxean dago Aneli Urbietak, atera gabe. Autonomoa da larrauldarra, baina Asteasun bizi da. Herri horretan dauka lantokia: Aneli ile-apaindegia.

Lanean, azken egunetako bilakaera zein izan da?

Lehenengo astean normal aritu nintzen. Bagenekien Koronabirusaren kontu hau, eta garbiketa neurriak handitu genituen. Ostiralean, ordea, Asteasuk alkatea etorri zitzaidan, udaletxera iritsi ziren protokoloekin. Lixibarekin garbitu behar zela eta beste hainbat neurriekin. Lehenaz gain, beraz, garbiketa areagotu egin genuen. Ostiralean eta larunbatean lana normaltasunez egin genuen. Egia da egun horietan hitzordu batzuk bertan behera utzi zituztela adineko zenbait bezerok. Normala den bezala badaezpadako neurriak hartu zituzten.

Aste honetan zer egiteko asmoa zenuen?

Hasiera batean asteartean normaltasunez irekitzeko asmoa nuen. Astelehenetan normalean itxita izaten dugu ile-apaindegia. Aste osorako bezeroekin hitzorduak zehaztuak nituen. Baina igandean uste dut zabaldu zi-

tuztela neurriak. Hasiera batean irekitzeko baimena genuen, baina egia da protokolo horiek ezin genituela bete. Puntuetako bat, adibidez, metro eta erdiko distantzia utzi behar zenuela zen. Gure lanean hori ezinezkoa da, bezeroaren gainean egoten garelako. Orduan asteartean ia ez nuen ireki.

Ireki ez arren, lana izango zenuen egun horietan, ezta?

Astelehena bati eta besteari deika pasa nuen: komertzialekin hitz egiten; ordaintetako negoziatzen; bankuekin hitz egiten... Seguru desberdinak dauzkate, eta ea zerbaite estaltzen zuten jakin nahi nuen, zeren gaur-gaurkoz, autonomoak salduta gaude. Espainiako presidentek autonomoen kuoten inguruan zerbaite aurkeztu duela uste dut, lantegia itxi behar edo %70eko galerak izanez gero. Gestoriarekin hitz egiten aritu naiz, baina ez zeukaten oso argi. Beste lagun bat ere autonomoa da, eta bere kasuan, ezer jasotzeko aukerik ez duela izango esan diote gestoriatik. Egia da bere kasua oso berezia izan dela.

Autonomo bakoitzaren egoera, aparteko mundu bat izango da, ezta?

Niri estatuak itxi edo irekitzea

galarazi dit. Ondorioz, ardura hartu beharko dute. Baina egia esan, gutaz ez da inor akordatzzen.

Lantegia itxita diru sarrerarik gabe geratu zara, baina gastuak ordaintzen jarraitu beharko duzu.

Bai, noski. Komertzialarekin akordio bat daukat, adibidez, hileroko 560 euroko kuota ordaintzen dut. Hitz egiten aritu naiz eta hilabete honetako atzeratu egingo didate.

Ile-apaindegia daukazu lantokiala zurea al da?

Aitarena da. Hor behintzat abantaila daukat.

Beste ile-apaindegien egoera jarraitu al duzu?

Sare sozialetan ikusi ditut hainbat komentario, eta harridura geratu naiz. Zenbait jabeek hilabete honetako alokairua barkatu diete. Hori azpimarratzekoa eta eskertzekoa dela uste dut. Izan ere, gastu horiez gain autonomo kuota ere ordaindu behar izaten dugu. Argindarra, ura eta beste hainbat gastu ere hor daude.

Horiez gain, lanetik aparte, eguneroko gastuak daude.

Nire kasuan etxea daukat, hipoteka batekin; kotxea ordaintzen ari naiz; etxeko argi indarra, gasa, ura eta ez dakit zer gehiago. Lantokiaz aparte pertsona nor-

mala naiz, eta nire gastuak dauzkat.

Zuen egoeraren informazio zehatzik bal al duzue?

Ez daukat. Astelehenean bankuekin hitz egin nuen. Izan ere, seguru pare bat dauzkat. Bata lantegikoa eta bestea hipotekarena, zeren hartzen duzunean bat eginarazten dizute. Ni edo mutila lanik gabe geratu ezkeror, seguruak garantia egiten duela suposatzen da. Deitzeko geratu ziren bankukoak, baina oraindik zain nago. Horrelaxe ibili naiz, denei bueltak ematen. Egin ditudan kalkuluen arabera, lanik egin gabe bi hilabete iraun ditzaket.

Eta ondoren, zer?

Kontua hori da, ondoren honek zer ekarriko duen. Ez dut uste jendea oso airoso ibiliko denik hau pasatakoan. Ni aurrenekoa. Zure aurrezkietatik tiratzen duzu, eta gero zer edo zer bada... Familian autonomo asko dauzkat, aita ere bai. Guztiak hor gabilta pixka bat...

Aztoratuta?

Ez, aztoratuta baina dena pixka bat antolatzen. Sanchezek neurri hori atera duela ikusten duzu, baina inork ez daki nora deitu behar den edo non eman behar den izena. Gestoriak ere buru belarri dabilta, ea zer eta nola egin

daitekeen. Hor ere baldintza batzuk egongo dira, eta ikusi beharko da.

Itzulera noiz aurreikusten duzu?

Printzipioz 15 egun dira. Gero, etxetik joateko aukera eskaini digute. Baina ez dut uste aukera bat denik. Aurreko astean jendearekin normal ibili naiz, baina lanean ere. Orain adinekoen etxetara joateko ez nago. Azken finean, horrelako neurritxoak hartzen dituzte ez onartzeko erabat lanik gabe utzi gaituztela.

Lehen zure lagunaren kasua berezia zela esan duzu.

Asteasukoa da bera, kuadrillakoa, baina Donostian eta Lasartan ditu dendak: 24 ordutan egoten diren saltzeko makina horiekin. Berari kasu honetan estatuak ez dio lana galarazi. Baina asteartean, makina betetzera eta garbitzera joan zenean, Donostiak prezintatuta aurkitu zuen. Udalak hartu zuen erabaki hori, berari ezer esan gabe. Ondorioz, salduta geratu da. Izan ere, estatuak ez dio itxi, udalak baizik. Legalki lanean ari da. Irekitzen baldin badu, udaltzaingorak isuna jarriko dio, eta udalak deskuidatuz gero lizentzia kendu. Baina estatuaren aurrean laguntzak eskatzeko garaian, esan bezala, lanean ari da.



Aneli Urbietaren ileapaindegia pertsonak jaitsita ditu, Asteasun. JON MIRANDA



Ertzaintzak garraioarekin egindako joan-etorriak neurtuko ditu

Gogorarazi dute konfinamendua ohiko etxebizitzetan bete behar dela eta ezin dela bigarren etxebizitzetara joan

Erredakzioa

Azken egunetan gehitu egin dira Ertzaintzak errepidean jartzen dituen kontrolak. Baimendu gabeko joan-etorriak eragozteko neurriak hartzen ari dira, bereziki, garraio partikular eta kolektiboak.

Era berean gogorazi nahi izan dute alarma egoeratik ezarritako konfinamendua ohiko etxebizitzetan bete behar dela eta debekatuta dagoela bigarren etxebizitzetara edo aisialdikoetara joatea. Baimendu gabeko bidaiak eragozteko, eta, batez ere, San Jose zubira begira, Ertzaintzak kontrolak ezarriko ditu errepideetan eta garraio kolektiboaren geltokietan. Kontrol horietan, desplazamenduaren arrazoiak argitasun osoz eta egiaztatzeko moduan justifikatzeko azalpena eskatu ahal izango die gidariei.

Une hauetan, herritarrek lan jarduerak edo premia bizikoak egiteko bakarrik zirkulatu dezakete bide publikoetatik. Horretarako, Ertzaintzako eta Udaltzaingoetako patruilek frogaketak egingo dituzte debeku horiek betetzen direla ziurtatzeko. Ertzaintzak errepideetako edo horietako zati batzuetako zirkulazioa eten ahal izango du, besteak beste, osasun publikoarekin, segurtasunarekin eta trafikoaren arintasunarekin lotutako arrazoiak tarteko badira.

Sarraila elektronikoa duten edukiontziak desblokeatu dituzte

Tolosaldeko Mankomunitateak hondakin bilketa zerbitzua normaltasunez mantenduko du, baina koronabirus kasuak dauden etxebizitzetan neurri bereziak hartu beharko dira

Irati Saizar Artola Tolosaldea

Eusko Jaurlaritzaren gomendioak jarraituz, Tolosaldeko Mankomunitateak hainbat neurri hartu ditu hondakin bilketa zerbitzuan, koronabirusaren hedapena saihesteko asmoz. Neurri horiek Tolosaldea osoari eragiten diote, eta bereziki Covid-19aren kutsatutako pertsonen etxebizitzetan izango dute eragina.

Kutsatutako gaixoen kasuetan, gaixoak eta haren zaintzaileak erabilitako hondakinak, besteak beste, eskularruak, zapiak, maskarak eta antzekoak, errefusaren edukiontzian bota beharko dituzte eta ezingo dira gaikako bilketako edukiontziak erabili. Plastikozko poltsa behar bezala itxi eta bigarren poltsa batean sartu beharko dira. Etxeko gainerako hondakinak ere errefusaren edukiontzira atera beharko dituzte, behar bezala itxitako poltsa batean. Debekatuta izango dute edukiontzien aldamenen lurrean uztea.

Positiborik ez den etxeetan hondakinak gaika banatuko dira, ohi bezala, eta errefusa ahalik eta gehien murrizteko eskatu dute. Gogorarazi dute latexezko edo nitrilozko eskularruak ez direla ontziak, beraz, ezin direla ontzi arinen edukiontzira bota. Gainerakoan, hondakinen bilke-



Sarraila elektronikoa duten edukiontzi guztiak desblokeatu egin dituzte. J.M.

ta zerbitzuak, momentuz behintzat, bere osotasunean normaltasunez mantenduko direla ziurtatu du mankomunitateak.

Era berean, sarraila elektronikoa duten organikoa eta errefusaren edukiontzi guztiak desblokeatu egin dituzte, txartelik gabe erabili ahal izateko.

ZERBITZUAN ALDAKETAK

Tolosaldeko mankomunitateko aurrez aurreko arreta zerbitzua eten egin da. Kontsultak emailaz

edo telefonoz egin behar dira 08:00etatik 14:00etara.

Garbigunea ere itxita egongo da partikularrentzat. Momentuz, udal zerbitzuek eta gremioek soilik erabili ahal izango dute.

Tolosako Udalak azaldu duenez, kale garbiketa zerbitzua mantendu egingo da eta produktu desinfektatzaileak erabiliko dira garbiketarako. Bereziki ambulatorio inguruak edota saltokiak dauden eremuak garbituko dituzte.

Ariketa fisikoa etxean egiteko app bat, tolosarren eskura

TOLOSA // Ariketa fisikoa etxean egiteko aukerak aztertzen ari dira Tolosako Udala eta Kirolzer enpresa. *Mootiv* entrenamendu aplikazioa deskargatzeko gonbidapena egin diete herritarrei, premium bertsioan egunero-egunero entrenamendu ezberdinak egin ditzaten. Neurriak egin dako entrenamenduak egiteko aukera ematen du, bai entrenatzaile birtual bidez edota entrenatzaile pertsonalen bidez.

Eskulan birziklatuak egiteko deia egin dute Amezketako Udaletik

AMEZKETA // Udaleko gazteria sailak entretenimendurako ekimen bat jarri du martxan: birziklatutako materialekin eskulana egitea. Gaia baserria izango da eta 6 eta 12 urte bitarteko haurrentzat prestatu dute. Parte hartzen dutenek eskulanaren argazki bat bidali beharko dute whatsapp bidez 688 711 675 zenbakira, iganderako. Eskulanen argazkiak Facebooken eta Instagramen jarriko dituzte ikusgai.

Argazki rallya egingo dute Berastegin sormena lantzeko

BERASTEGI // Etxean daudenen irudimena aktibatzeke argazki rallya antolatu du Berastegiko Udalak. Gaia #NiEtxeanGeratukoNaiz izango da, eta parte hartzaile bakoitzeko hiru argazki bidali beharko dira *kultura@berastegi.eus* helbidera. Azken eguna apirilaren 3a izango da. Bi sari banatuko dituzte; 17 urtetik beherakoentzat bokata erosteko bale bat Ategin, eta 18tik gorakoentzat elikagaien saski bat.

Hilberriak eta urteurrenak



HURRENGO LARUNBATEAN, MARTXOAK 21, ZORTZIGARREN URTEURRENA

Ainhoa Murua Ugarte

www.ainhoa-murua.com

2012ko martxoaren 21ean hil zen, 32 urte zituela.

Zure irribarre beti izango dugu gogoan.

"It's impossible to forget someone who gave you so much to remember..."

Amatxo, aitatxo eta Mikel anaia.

ataria jarrita Gipuzkoako 3 Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm):	110 €	• Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 64mm):	160 €	• Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 64mm):	60 €	• Harpidedunentzat 30 € bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

Birusak txokoan utzi du pilota

Binakako pilota txapelketak azken txanpan zeudenean, bertan behera geratu dira oraingoz. Bitartean, Erik Jaka, Jon Ander Peña eta Miren Larrarte sasoiari eusten ahalegintzen ari dira.

Imanol Garcia Landa

Pilotari profesionalen lehen eta promozio mailako binakako txapelketak, zein Emakume Master Cup binakako txapelketa jokoan ziren, koronabirusa ez hedatzeko hartutako neurriek geldialdia ekarri duen arte. Hiru txapelketak, gainera, azken txanpan zeuden. Lehen mailakoa eta promoziokoa finalerdietan, eta pilota mistoarekin jokatzen den Emakume Master Cup finalaren zain.

Erik Jaka lizartzarra Zabaletarekin batera ari da lehen mailako Binakako Txapelketan parte hartzen. Finalerdietako ligaxkaren bigarren partida jokatzeak ziren aurreko asteburuan. «Enpresaren aldetik pazientzia izateko esan digute, gauzak ahalik eta ondoen egitea dela garrantzitsua. Nik uste dut ondo hartutako erabakia dela», esan du Jakak. «Hau dena bukatzen denean, txapelketarekin jarraituko dugula uste dut. Hiru jardunaldi gertzen dira eta nik uste dut egutegian lekua topatuko dutela». Geldialdia bi asteak bada, planak ez direla gehiegi aldatuko uste du. «Gehiago luzatzen bada, enpresek gauza berriak pentsatzen hasi beharko dute».

Aurten debuta egin du Jakak titular moduan Binakako Txapelketan, eta txapelketako ligaxka lehen postuan amaitu zuen Zabaletarekin batera. Finalerdietako lehen partida galdu egin zuten, eta bigarrenaren zain zeuden gogotsu. «Azken batean, egoera berria da denontzat, deserosoa, eta ahalik eta ondoen pasatzen jakin beharra dugu, eta berriz txapelketa itzultzen denarako, ahalik eta sasoi onenean egoten saiatu behar dugu», esan du lizartzarrek.

Jon Ander Peña tolosarra promozio mailako Binakako Txapelketa jokatzen ari da Aranguren bikote duela. «Enpresatik etxean geratzeko esan digute, eta ahal dugun moduan sasoi mantentzeko», esan du. Finalerdietako ligaxkaren hirugarren eta azken jardunaldia jokatu baino bi egun lehenago abisatu zieten bertan behera geratzen zela. Aurretik, Peña eta Arangurenek partida bat galdu eta bestea ira-



Erik Jaka, bizikleta estatikoaren gainean, eta Miren Larrarte, korrika egiteko zintan, entrenatzen. ATARIA



Jon Ander Peña, etxean ariketa fisikoa egiten. ATARIA

bazita zuten. Irabazitakoa Erasun atzelari zizurkildarrarekin jokatu zuen Peñak. «Gure esku zegoen, hirugarren partida irabazita finalera pasatzen ginen, baina orain auskalo noiz jokatuko dugun». Peña gustura dago egiten ari den denboraldiarekin: «Lau eta erdiko txapela irabazi ondoren, oso gustura nengoen Aranguren bikote bezala tokatu zitzaidalako, eta txapelketa oso ona egiten ari ginen».

Miren Larrarte bidaniarra Emakume Master Cupeko Binakako Txapelketan parte hartzen ari da Olatz Ruiz de Larramendirekin batera, pilota mistoarekin. Finalerako sailkatuta daude, martxoaren 29an jokatzeak zena, Gentzane Aldai eta Olatz Arrizabalaga bikoaren aurka. «Antolakuntzatik ez digute ezer ofizialik zehaztu, baina logikoa denez bertan behera geratuko da». Lehen aldiz antolatu da bi-

nakakoa pilota mistoarekin. Finalera iristeko bi partida gainditu behar izan dituzte Larrartek eta Ruiz de Larramendik. «Lehenengo uste baino hobe joan zen. Urte hasieran pneumonia izan nuen eta buelta ematea kostatu egin zait. Finalerdia zaila goa izan zen: Olatz ondo aritu zen atzean, baina niri ez zitzaidan partida ona ateratu». Larrarte palan ere aritzen da, eta orain Grabni txapelketa hastekoa zen, baina bertan behera geratu da oraingoz.

ETXEAK KIROLDEGI BIHURTUTA

Sasoi mantentzeko etxeko baliabideak erabiltzea beste erremediorik ez dute pilotariek. «Lan fisikoa egiteko aukera daukat garajeetan eta etxean bertan. Prestatzaileak eguneroko lan fisikoa jartzen dit, eta garajeetan pilotatzen suabe aritzen naiz», esan du Jakak. Etxean badu zenbait material urteen poderioz biltzen joan dena: «Pisuak badi-tut, bizikleta estatikoa, gomak, baloi medizinala...». Horrez gain garajea nahiko luzea duela dio lizartzarrek eta esprint batzuk egiteko baliatzen duela dio.

Peñak ere etxean baditu pisuak eta horien bitartez ariketak egiten aritzen da. «Luzaketak, abdominalak eta lunbarrak lan-

du...», etxean geldirik egin daitezkeen guztiak», esan du tolosarra. «Gero, mugitu ere egin behar da, eta eskaileretan eta garajeetan ahal dena korrika egin». Egoera hau «luzerako» joan daitekeela dio Peñak: «Hilabete edo hilabete eta erdi frontoi batera joan gabe, geldirik egoteak, asko zigortzen gaitu eta denbora beharko dugu aurretik genuen sasoi izateko».

Pilotarien lanaren parte da «eskuak behar bezala eginda izatea», gaineratu du Jakak, «eta ahal dugun moduan egiten ari gara lan hori. Eskuak gaizki badi-tuzu edo bigunegi badaude, tako gehiago jarri behar da edo lesioak sortzen dira». Peñak gaineratu duenez, «pilota bigunarekin ibili zaitezke garajeetan zerbait egiten, baina gogorrekarekin takoa jantzita, ezinezkoa da». Larrarte pilota mistoarekin ari da lehiatzen, eta berak ere garajea erabiltzen du eskuak lantzeko pilota horrekin: «Pilota goxoarekin eskuek ez dute hainbeste sufritzen, baina behin mistoarekin hasten zarenean alde handia nabaritzen da ez baduzu lantzen». Larrarte ere etxean ari da prestakuntza fisikoa egiten, eta horretarako, besteak beste, korrika egiteko zinta erabiltzen du: «Oso ondo etortzen ari da tresna etxean izatea».

Sasoi mantentzeko ariketak egiten ez dituenen, Jakak denbora pasatzeko hainbat jarduerak egiten ditu: «Ingurukoekin hitz egin, irakurri, telebista ikusi, kartetan jolastu... Egunero entrenamenduak ditugu eta uste dut garrantzitsua dela aurretik nituen errutina guztiak ez galtzea. Horrek ere buruari on egiten dio. Bestela, txakurra ere badut, eta pixka bat kalera ateratzeko ere balio du».

Peñak, bere aldetik, unibertsitateko ikasketak Internet bidez egiteko aukera du: «Goizean ikasketei heltzen diogu eta arratsaldeetan pelikulak ikusi, mugikorrean jolastu...», ahal dena denbora pasatzeko». Larrarte base-rrian bizi da, eta tarteka animaliei jana eman behar izaten dio: «Ondo etortzen da hori, haizea hartzeko aukera ere baitut horrela».



OSTEGUNA, 2020KO MARTXOAK 19
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Gotz, Edoan, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Aplikazioa Arrosaren 23 irratiak entzuteko

ATARIA IRRATIA entzuteko modu berria izango da aurrerantzean, Fm bitartez eta ataria.eus-ez gain

Urtzi Urkizu Berria

ATARIA IRRATIA entzuteko aurreantzean modu bat gehiago izango dute Tolosaldeko euskarazko irratiak entzuteko. Izan ere, Arrosa irrati sareak gailu eramangarrietarako aplikazio bat sortu du, eta laster egongo da erabilgarri mugikor guztietan.

«Aplikazioa deskargatzen duenak Arrosa sareko 23 irratiak entzun ahalko ditu, dagoen tokian dagoela», iragarri du Ion Etxebarría Arrosako koordinatzaileak. Euskal herri osoko irratiak biltzen ditu Arrosa sareak, tartean, ATARIA IRRATIA. «Klik batean 23 irrati egongo dira eskura. Oraingoz hori eskainiko du aplikazioak, eta irrati bakoitzaren



Aplikazioa izango duen itxura. ATARIA

webgunerako sarrera zuzena ere eskainiko du». Etxebarriak azaldu duenez, ez da izango podcastak entzuteko aplikazio bat, nahiz eta Arrosaren webgunek ematen duen aukera zenbait podcast entzuteko.

Sortu berri duten aplikazioaz gain, ATARIA IRRATIA Fm bitartez entzun daiteke Tolosaldean, 107,6an, eta internet bidez, ataria.eus-en.

JARDUNALDIAK BERTAN BEHERA
Bestalde, hilaren 28 ziren IX. Arrosa Jardunaldiak egitekotan, baina, koronabirusa dela eta, bertan behera geratu dira. Errenterian ziren egitekoak, aurten 35 urte betetzen ditu bertako Zintzilik irratiak antolatuta.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Udaberri giroa. Hego-haizeak jotzen jarraituko duenez termometroak are gehiago igoko dira, maximoak 19-21 gradu bitartean geratuz. Zeruian goizean apenas ikusiko dugun hodeirik. Arratsaldean bero-hodeiak garatuko dira eta azken orduetan ez da baztertzen zaparradaren bat izatea.



Bihar. Zeruian hodei gutxi ikusiko dugu egunaren lehenbiziko partean. Egurdi-tik aurrera bero-hodei batzuk garatuko dira, batez ere, mendirik altuenen inguruan. Hala ere, apenas

egingo duen euririk. Haizeak hego-ekialdetik joko du, eta tenperatura maximoak pare bat gradu jaitsiko dira, 17-19 graduan joaz goia.

ATARIA IRRATIA

Egun osoan. Euskal musika.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. L. Azpiroz. Larremendi, 6 behea 1. 943 67 5118.

TOLOSA. Gauekoa. L. Azpiroz. Larremendi, 6 behea 1. 943 67 5118.

Tolosaldeko ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ARROSAKO IRRATIAK

97 irrati.
Antxeta irrati.
Arraio irrati.
Ataria irrati.
Bilbo Hiria irrati.
Biztu irrati.
Eguzki irrati.
Eup! irrati.

Esan Erran irrati.
Gure irrati.
Hala Bedi irrati.
Irati irrati.
Irulegiko irrati.
KKinzonea irrati.
Kontrako Etxarrixe irrati.
Naiz irrati.

Oiartzun irrati.
RadioKultura.
Radixu irrati.
Txapa irrati.
Xiberoko Botza.
Xorroxin irrati.
Zintzilik irrati.

ZORION AGURRAK

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95
ataria@ataria.eus
San Esteban 20
Tolosa

www.ataria.eus • 107.6 fm •

Hemen eta online

iragarki laburrak .eus

iragarki laburrak .eus

erabili • lana bilatu • saldu • erosi • berrerabili • lana bilatu • saldu • erosi • berrerabili • lana bilatu • saldu • erosi • berrerabili